

2007KO OTSAILAREN 22KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko otsailaren hogeita bian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olosa Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Inazio Estensoro Eskisabel zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2007ko urtarrilaren hogeita bostean egindako bilkurako akta.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du berak ez duela akta jaso.

Olaso zinegotziari bidaltzen zaizkion akta zirriborroak, berak hala eskatuta, bere alderdia den Alderdi Popularrera bidaltzen direla eta aktak han entregatu izanaren zurigarriak Idazkaritzan daudela konstarazten da.

Hau honela, gainontzeko guztiek akta idatzita dagoen moduan onartzen dute.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Serna zinegotziak (PSOE) esaten du gizarte zerbitzuetako laguntzei buruz laburpen honetan egiten diren aipamenak datu pertsonalik jarri gabe egitea iradokiko lukeela, espediente zenbakiaren bidez definituta utziz soilik.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ARERIA ERAIKIN SOZIO-KULTURALAREN ERAIKUNTZA LANEN 2. ZERTIFIKAZIOA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen 2. zertifikazioa luzatu du. Bigarren zertifikazio honen zenbatekoa LAUROGEITA ZORTZI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA LAU EURO eta HA-

MABI ZENTIMotakoa (88.164,12 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkarte ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Serna zinegotziak (PSOE) obra aurrikusi moduan al dihoan edo bestela desbiderapenik egon al den galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio esanez, hasieran harkaitza atera zela uste ez zen lekuan baina gainontzean ez dela desbiderapenik izan.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Azeria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen 2. zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

IV.- ARERIA ERAIKIN SOZIO-KULTURALAREN ERAIKUNTZA LANEN 3. ZERTIFIKAZIOA.-

Azeria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen 3. zertifikazioa luzatu du. Hirugarren zertifikazio honen zenbatekoa LAUROGEITA BI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BAT EURO eta LAUROGEITA HAMAIKA ZENTIMotakoa (82.661,91 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa-Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Azeria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen hirugarren zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik Fundiciones Lazkao, S.A.k egin duen eskariari buruz zer dagoen galdetzen dute.

Alkateak erantzuten die zerbait dagoenean esango zaiela.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.